

bid egileak



**Jose Basterretxea *Oskillaso* (1911-1996)**

Egilea:

**ADOLFO AREJITA**

## Madrilen jaiotako gernikarra

**J**ose Basterretxea Matoni (1911-1996) idazle, irakasle eta ikertzailea gernikarra dugu izatez eta gogoz, nahiz bizitzaren halabeharrak hala nahita, Madrilen jaiotzea suertatu zitzaion, XX. mendeko hamaitgarren urtea amaitu hurren zelarik, abenduak 9 zituela.

Beronen aita, Juan Pedro Basterretxea Iraurgi, jaiotzaz zornotzarra zen, lanbizidetzako barku-kapitaina. Euskaldun osoa eta euskaltzalea izan zen Juan Pedro hau, eta Gernika aldeko abertzale goiztiar haietakoa, itxura guztien arabera. Itzasgizona zen aldetik, ingelesa ere



Jose Basterretxea Matoni *Oskillaso* (1911-1996)

ondo zekien, hori baitzen artean ere itsastar gizonen artean harreman-hizkuntza. Geroago ere, Franco-peko lehen urteetan anglofilo zela erakutsiko zuen, Mundu Gerrate aldian BBC-koei bidaltzen baitzien azpitik informazioa.

Ama, Maria Pilar Matoni Parra, Nafarroako Corellan jaioa zen, lehen deitura horrek aurretiko italiarrak zituela salatzen badu ere. Ama horrek ez zekien euskara. Ez dakigu non eta

zelan ezagutu ziren (Madrilen beharbada?). Ezkondu eta osteko lehen urteak Madrilen igaro zituztela dirudi. Jose Basterretxeak berak aitortua da 4 urte zituenetik 17 urte bete zituen arte horretan bizi izan zela Gernikan, eta han ikasi zuela euskara.

Familia bizitzen Gernikara etortzen delarik, Saraspe auzoan izango dute etxea, Asilo Calzada kalean. Han igaroko da familiaren bizi-modua —aitarena izan ezik, itsasotik datorren aldi laburretan ez bada—, harik eta 1928an Gaztela aldera aldatuko diren arte; geure biografatuaren osasun arazoak direla-eta gertatuko da toki-aldatze hori.

Josek, auzo berekoak eta adin beretsukoak ziren lagun ezagunak izango ditu beste batzuen artean, bere eleberrietan ere behin baino sarriago izendatuak: Onaindiatarrak, hain zuzen, gero pilotari handi izatera helduko dena bata, Juanito. Pilota-zaletasuna beti eroango du bihotz-bihotzean Oskillasok, euskararekin batera, bere euskalduntasunaren identitate-ardatz legez. Gernikartasuna izango du beste ardatzetariko bat, zeren, jaiotzez madrildarra bada ere, bere burua gernikartzat edukiko du beti, zer esanik ez euskalduntzat.

Joseren ondoren hiru seme-alaba etorri ziren: Itziar, Jon eta Karmen, zaharretik gazteenera. Horietarik gazteen biak bizi dira oraindino (2006), familiaren bigarren bizileku, 30eko hamarkadan bihurtuko zen Madrilgo hiriburuan hartan ere.



Agustinoen ikastetxean fraide arduradun batekin (1918 inguru)



Nekazari jantzita Gabonetan-edo (1916 inguru)

Oskillasok Gernikan igaroko dituenak, bada, umetako eta mutikotako urteak dira, hamahiru gutzira, baina baten bizitzan bere nortasuna sendotzeko erabakigarrienak. Euskara, etxean barik kalean ikasiko du, mutiko-lagunekin eta helduekin gehienbat. Beronen arrebek, ostera, ez ei zuten euskara modurik ikasi; orduan neskatilek kale-bizimodu gutxiago egiten ei zuten, eta ostean ere —hau geure ustea da— etxe oneko gernikarren artean erdararako joera handiagoa egongo zen orduan ere, baserritarrena gehiago zen euskara egitekoa baino. Anaia gazteenak ere, Jonek, ez zuen euskara ikasi, zeren artean umea baitzen Gernikatik Gaztela alderantz jo zutenean. Hala

bada, Juan Pedro aita eta Jose seme zaharrena izango dira etxeko euskaldun bakarrak. Aitak, bestalde, egotaldi luzeak itsasoan egiten zituenez, harreman bakan eta mehatzak baino ez zituen seme-alabekin izango ziurrenik.

Orduan Gernikan zegoen —eta orain ez dagoen— agustinoen ikastetxean egin zituen batxileratorainoko eskola-ikasketa guztiak; gaztelaniaz, jakina, orduan besterik ez baitzen. Ikastetxeko fraideek ateratzen zuten *Guernica* aldizkarian agertu ziren, 1926an edo, Josek egindako marrazki bat eta idazlana. Gaztetarik erakutsi zuen bada arte eta literaturarako jita.



Agustinoen ikastetxeko eskola-lagunekin (Gernika, 1922 inguru)

## Gaztela aldera eta Madriler

Gernikaldeko eguraldi umelak ez zion onik egiten, hamaika urte ingururekin hartu zuen asma eritasuna zela eta. Maiz jasaten zituen esturaldi larriak, eta halaxe erabaki zuten etxekoek klima lehorrago batera joatea osasunerako hobe izango zukeela, eta 1928an, Josek 17 urte zituela, Valladolid-era joan zen familia osoa bizitzera; amaren aldeko amonaren nebak edo bizi ziren han. Hango unibertsitatean hasi zen, orduan «Ciencias físico-matemáticas» zeritzen goi ikasketak egiten. Han ziren unibertsitario euskaldunekin harreman handia izan zuen. Horrezaz *Gabeko Atorra* eleberrian mintzo zaigu protagonistaren ahoz.



Oskillaso-ren azken eleberria (1988)

1930ean Juan Pedro aitak «Cuerpo general de Servicios Marítimos» erakundeko oposaketak aterako ditu, itsas ministerioko funtzionario bihurtuz; horrela behin betiko utziko ditu itsas ibilaldi luzeak. Ondorioz familia Madriler joango da bizitzen 1930 urtean; aurrerantzean hiriburua bihurtuko da familia egoitza. Josek «Complutense»n izena eman- go du zientzia zehatzak ikasten jarraitzeko.

Madrilgo unibertsitate-denbora horretan, «Euzko Ikasle Batza»ren lehendakari hautatuko dute, Madrilen bizi ziren euskal unibertsitarioen elkarte. Ardura berri horrek ikasketetan atzerabidea ekarri ei zion eta kurtsoren bat atzeratzea ere bai, antza. Baina bestetik, harreman on eta ugariak egiteko bide ere bihurtu zitzaion. Han ezagutu zituen, besteak beste, Jon Bilbao eta Jesus Galindez, biak gero Ameriketara joango zirenak.



Gudu ostean Madrilen zela eginiko argazkia

## Gudua eta gudu ostea

Gudua etorri zenean, Parisera joan zen, 1937an dirudienez. Bakarrik eta ezer barik joan ei zen. Hasieran familiak dirua bidaltzen ei zion eta Sorbonako unibertsitatean jarraiera eman zien Madrilén utzitako ikasketei: matematika eta fisika ikasten zuen. Sorbonako ikaste-sistemak abantaila handia eman ei zion, gero Madrilera itzultzean, lizentziatura ateratzeko orduan.

Madril jausteko zegoela, familiak Bartzelonara aldatu behar izan zuen funtzionario-gorputz osoarekin batera. Gauzak latzago bihurtu ziren orduan. Bizi zen etxeko umeei eskolak emanaz ateratzen zuen bizimodua. Asmarekin arazo larriak berriro Parisen.

1939an, eztasun egoera horretatik irteteko, Marseillara jotzen du, handik barkuz Filipinetara joateko asmoz —han Mendieta zeritzan lagun bat zuen, gudu-denboran hara joana—. Azkenean Kataluniako mugatik Bartzelonara sartzea erabaki zuen, artean erbestera ziren beste askorekin batera. Bartzelona oraindik jausteko zegoen. Jende asko zetorren, eta multzo horren barruan sartzea errazago zen, hango muga kontrol gutxiago baitzegoen jende-uholde horrentzat guztiarentzat. Bestalde, Bartzelonan inork ez zuen ezagutzen.


Familiarekin batu zen han. Francotarrek Bartzelonaz jabetu zirenean, aita Juan Pedro preso hartu zuten, Errepublikaren funtzionario izateagatik, familia diru-egoera larrian gertatzen zela. Aitaren kartzelaldia amaitu zenean Madrilera itzuli ziren.

Gazte-lagunekin Madrilén



## Madril, Lleida, Iruñea

**S**ngeles ikasia zen tarteka-marteka Jose, ziurrenik autodidakta modura. Izan ere, Madrilera itzuli eta handik gutxira, 1940an, Iruñera dator «Principe de Viana» institutuan ordezkotza bat egiten. Goizetan mutilek, arratsaldetan neskatilek ikasten ei zuten. Ingeles-eskola horietan ikasle izan zuen, geroago (1955) bere emazte bihurtuko zen M<sup>a</sup> Dolores Moreno. Urte eta erdi inguru egon zen Iruñean. Adiskide abertzale eta euskaltzaleak ere bazituen han: Pachero Esparza, Cabasés (Iñaki politikariaren aita) eta beste batzuk.



Madriren bizi zenekoa

Madrilera doa berriro, agian matematika irakasle modura. Baina nola lizentziatura ateratzeko zeukan oraindik, gudu aurrean hasi eta Sorbonan jarraiera eman zien ikasketei amaiera eman beharra zeukan. Zientzia Zehatzak amaitu ondoren, Fisikan ere matrikulatu ei zen Complutense-an, asignatura asko baliokidetzuzen zizkiotelako.





Madrilen lankide batzuekin

Pintura ikasten ere jardungo du. Txikitatik zekarren arte-zaletasuna landu nahirik, «San Fernando» Arte Eder Eskola ezagunean matriculatu zen.

1942an Lleidara doa irakasle, Irakaskuntza Ertaineko Institutura ingeles katedrako hutsunea betetzera. Zazpi urtez egongo da han (1949ra arte) ingeles irakasle. Katalana ere han ikasiko du, nahiz, berak dioskun bezala «con fonética defectuosa». Han jokutzen zuten euskal pilotariekin harreman handia izan zuen. Ordukoa da euskal zestapuntisten pintura ezaguna.

Lleidatik Madrilera dator berriro. 1949tik 1955era bitartean Madrilén biziko da. Urte horretan Iruñera dator. Institutuan matematika irakasle hasiko da, artean irakasle zena, Jose Maria Urmeneta, Algortara datorrelako eta haren gomendioz.



Seme txikia besartean duela (1959)

1957an ezkonduko da M<sup>a</sup> Dolores Moreno-rekin. Urte horretan edukiko du lehen lan-harremana ere Nafarroako Unibertsitatearekin, fisika irakasle eta laboratorio praktikak zuzentzen jardungo duelarik aldi batez.

Handik urte bira, 1959an, ingeles oposizioetara aurkeztuko da Madrilén eta puntuaziorik onenetarikoa atera ere bai. Iruñeko institutua hautatuko du, eta handik aurrera bera izango da ingeles katedraren jabe «Principe de Viana» institutuan 22 urtean, harik eta 1981ean zaharsaridun egoerara aldatzea tokatzen zaion arte.

1959an izango du lehen umea, Juan Pedro semea, eta 1961ean bigarrena, Mirentxu alaba.

1960an hil zitzaion aita, Juan Pedro, gudu aurrean itsasgizona izana eta gudu ostean BBCren isilpeko berri-emaile.

Euskaltzaindiak 1963an izendatuko du laguntzaile.

Astaldietan, euskarari ez ezik, artegintzari ere ekingo dio, eta egindako oleo-pinturekin

erakusketa bi egingo ditu 1969an, Bilbon bata eta Donostian bestea.

1970ean Nafarroako Unibertsitatean modu iraunkorrez hasiko da lanean, euskara irakasteko gisa. Unibertsitatean euskal katedra bat sortua zeukan, eta hor eman zituen luzaz Basterretxeak eskolak, 1986 ingurura arte.

Azken urteetan zenbait omenaldi jasoko ditu. Batetik, Euskal Itzultzaile Elkartearena (EIZIE) 1991n. Bestetik Udako Euskal Unibertsitatearena.



Londonen familia osoa udaldian (1965)



Nafarroako Unibertsitateko Strobl irakasle alemanarekin (Iruñea)



Udako ingeles ikastaro baten diploma jasotzen (Iruñea, 1959)

## Hizkuntzazaletasuna

Oskillaso, nahiz ikasketaz eta heziketaz, zientzia adarrekoa izan, zaletasunez hizkuntzazalea zen. Hizkuntzak gogoko zituen, eta ondorioz eraz etorri zitzaizkion hizkuntzak ikasten ahalegindu zen.

Gaztelania, jakina, txikitatik eta gaitasun handiz menderatzen zuen. Euskara ere bai. Frantsesa eta ingelesa ere ondo zekizkien, ahoz eta idatziz, eta, hain ezaguna ez den datua, katalana ere bai. Horrezaz gainera, aleman eta italieraren funtsak ere bazituen.

Gaztelania etxetik zekien, ama erdalduna baitzuen, baina Gaztela eta Madril aldean igaro zuelarik gaztezaroko eta heldutasuneko urte asko, ondo ikasi ez ezik, goi mailan idaztera heldu zen. Gaztelaniaz idatzi zituen saio-lanak irakurtzea nahiko da horrezaz oartzeko. Literatura klasikoa maite zuen,

eta batez ere «El Quijote» zuen obrarik maiteena.

Frantsesa, Gernikako agustinoetan hasiko zen ikasten, baina 1937-39 bitartean, lehenengo Ipar Euskal Herrian eta jarraian Parisen egin zuen erbestealdian landu eta menderatuko zuen. Ondo ikasi zuen frantsesa, eta familiarekin udetan Frantzian egin zituen egotaldien bidez seme-alabek ere ikas zezaitez saiatu zen. Lanbidez horren beharrik eduki ez arren, irakurle handia zenez eta obrak jatorrizko hizkuntzan irakurtzea gogoko zenez, haren interesaren sustraia zein zen jakiten ez da gaitza.

Ingelesa bihurtuko da Oskillasorentzat kanpo-hizkuntzarik inportanteena. Aitagandik jaso zuela ingeles-zaletasuna pentsa daiteke; ontzi-kapitaina izanik, ingeles jakin ez eze,



Baionara bidaia 1958ko udan

anglofiloa ere bazen, orduko beste itsasgizon askoren antzera. Basterretxeak ingelesa, bere kasa ikasi zuen gehienbat.

Gerraoste hasieran gutxi-asko bazekien. 1940an Iruñean, ordezkotza bat eginik, «Principe de Viana» institutuan ingeles irakatsiko du. Garbi ez dakiguna, gerraoste horretan ze maila jadesi zuen. Baina gerora, hizkuntza hori, eta horren eremuko kultura eta literatura, bihurtuko dira bere lanbide eta pentsamoldearen ardatz.

Euskara Gernikan ikasi zuen, batez ere mutikotan, baina landu askoz geroago egin zuela pentsatu behar da. Bere kontura landu zuen euskara, seguruenik gerra aurrean Madrilen unibertsitario zela hasita. Baina euskara bere osotasunean sakontzen, batez ere behin betiko Iruñean finkatu ondoren hasi zela uste dugu. Bere hizkeraz gainera, euskalki nagusiak sakon ikasten saiatu zen, eta ondoren oraindik egin barik zegoen batasunerako urratsak egiten.



Senar-emazteak alabarekin (1967 inguru)

## Irakaskuntza

Matematika irakasten jardun zuen apurren bat gerraosteko lehen urteetan, bai Madrilen, bai Iruñean.

Baina ingelesa izango du bizi guztian irakasbide nagusi. Iruñeko 1940ko urte eta erdiko egotaldiaz aparte, Lleidan lehenengo (1942-1949), oraindino katedrarik ez duela.

Ondoren, Madrilen urte batzuk egin ondoren, 1955ean Iruñeko institutura etorriko da, lehenengo matematikak irakasten, eta gero, katedra atera ondoren, 1959tik aurrera ingeles irakasle.



Uda ibilaldi bat erbestean (1969 inguru)

## Euskara batuaren lorratzean

60ko hamarkada hasieran euskara batuaren kezka handia zen euskal gizartean, eta Basterretxeak ere bere ekarria egin nahiko du helburu horri buruz. Gogoeta eta oharpen luzeen ondoren, eta euskalki diferenteen, batez ere nagusien, berezitasunak geldiro aztertu eta gero, saio praktikoa egitera ausartuko da. Obra literario baten mamituko du saio hori: *Kurloiak* eleberrian (1962).

Horrekin batera antzean eta ondoko urteetan *Egan* aldizkarian argitaratuko dituen narrazio laburretan gehiago sakonduko du bere ahalegin horretan. Euskalki nagusien ezauga-

rriak islatuko dituen eredu bat proposatuko du, berak «euskara osotua» deituko duena.

Mitxelena hasieran ez du begi txarrez ikusiko ahalegin hori. Ez eta Irigaraik, Lafittek eta beste batzuek ere. Villasantek zorrotzago kritikatu du Basterretxearen joera. Aldi hartan, bai lapurtera klasikoaren bidetik jotzen zutenak, bai gipuzkera-lapurteren ardatzean batasuna egin nahi luketenak ez zituen asetzen Basterretxearen ereduak.

1968ko Arantzazuko Kongresuak guztiz zarratuko dizkio ateak bere proposamenari. Orduetik aurrera ezkorrago agertuko da euskal literaturaren eta euskal hizkuntzaren etorkizunaz.

## Emaitza literarioa

Esuskaraz hiru esparru landu zituen literaturgintzan: eleberria, narrazio laburra eta itzulpen literarioa.


Eleberrigintzan *Kurloiak* obrari esker egin zen ezagun. 1962an plazaratu zen literato modura, hizkuntzaren batasuna eta didaktikotasuna ardatz izango zituen obra batekin. Batasunaren prozesua oraindik finkatzeko zegoen aldi horretan, *hitzaurre* luze baten plazaratu zuen, berak *euskara osotua* zeritzan eredu, eleberri horren bidez hezur-mamitzen saiatu zena. *Kurloiak* obra autobiografikoa dugu hein handi baten; idazleak bere haurtzaroa konta-

tzen digu funtsean, «Arrigorrieta» izenpean ezkututzen duen Gernikako bere hiri bihotzekoan gertaturiko ume-denborako bizitza. Eleberriaren atal bakoitzari ondoren glosarioritxo bat erantsiko dio atzean, irakurlearen argigarrirako.

Artean nekez ezagutzen zen estilo bere-bereagertuko du idazleak, besteak beste hizkuntzaren trataeran. Narrazioa «euskara osotu» horretan idatziko badu ere, dialogo-



Eleberri ezagunenaren azala, egileak egina (1962)



Eganen argitaraturiko ipuina (1963)



Eganen argitaraturiko eleberrirak (1967)



Oraintsura arte ezaguna ez zen eleberria (2003)

etan tokian tokiko erregistroa erabiliko du. Obra honetan Gernikaldeko hizkera ia guztian.

Beste eleberririk ez du argitaratuko zahartzarora artean. Lehenengoarekin behar adinako arrakastarik jadesi ez zuelako edo Arantzazuko Batzarrak (1968) beste bide bat hautatu zuelako, isilaldi luzea izango du ondoko hamarkadan, eta 80koan helduko dio berriro apalki langintza horri.

*Kurloiak* argitaratu eta gutxira beste eleberririk bat idatzi zuen, *Euskaldunak Madril'en* izenburuduna, 1963 inguruan, dirudienez, askoz geroago, 1984an, Bilbon eratzen zen Azkue sarira aurkeztu zuena. Obra honek, tamalez, oraintsura arte (2003) ez du argirik ikusi (Suterindoa, Labayru Ikastegia). Kronologiaz Ko-

reako gudu denbora hartzen du, 50eko hamarkadaren lehen urteak. Madrilen kokatua da; hango euskaldunen mundu eta giroa kontatzen digu idazleak, zertzelada ugariz, giro-tze paregabeaz eta umore ederrez. Pena da, sortu izan zen aldian argia eta arrakasta eza-gutu ez izana obra honek.

Askoz geroagokoa da *Gabeko atorra* deritzan eleberria; 1983 inguruan idatzia. «Euskara osotu» horretan idatzi zuen besteak bezala, baina bizkaieraz argitaratu zuen 1988an, Bizkaiko Ibaizabal argitaletxean. Literaturgintzan bizkaieraz zegoen hutsuneak kezkatzen zuen aldi horretan eta horregatik hartu zuen burubide hori.

Idatzi asmo zuen eleberririk sendoena, euskaraz hasi zuen, baina, euskal administrazioak bere eleberrri-proposamena aintzat ez zuela hartu eta, biziro haserretu zen eta, euskaraz erredaktatuak zituen lehenengo atalak bertan behera utzirik, gaztelaniaz jarraitzea erabaki zuen. Hala ondu zuen *Los gemelos de Iturriondo* deritzan eleberrri luzea, oraindik argitaratzeko dagoena. Bizitzan bide guztiz diferenteak hartuko dituzten anaia biki euskaldun biren bizitza kontatzen zaigu, bata pilotari eta bestea misiolari Txinan, Maoren iraultza aurretxoan eta aldian. Ondo dokumentaturiko obra luzea.

Eleberrri laburraren barruan sar genezake *Akatsbako gizonaren heriotza* izenburua duena, eta gehienbat narrazio laburren artean sailkatu ohi dena. 1964an idatzia izan arren, hiru urte geroago argitaratu zen *Egan* aldizkariaren orrietan (1967). Polizia-eleberrri generoan koka genezake obra hau.

Narratiba laburra landu zuen aldi beretsuan idazleak, aldi hartan Mitxelenak-eta gidatzen zuten *Egan* aldizkarian argitaratzen zituela, ia guztiak 1962-67 bitarte horretan. *Mikel eta erdeldunak* (1962), *Nylonezko euritakoa* (1964), *Zerura joan eta atzera etorri* (1964) eta *Hizkuntzalari handi bat* (1965) dira ezaunak.


Neurri laburrago eta maila apalagoko ipuintxoak baditu *El vasco de hoy* metodo didaktikoaren barrena sakabanaturik ere.

Itzulpen literarioa aipatuko genuke literaturgintzako hirugarren puntu legez. Oskillasok, bere garaiko euskal literatura produkzioa baino askoz gehiago estimatzen zuen literatura unibertsala, eta gaztelaniaz, frantsesez edo italieraz sortzen zenaren gainetik literatura angloamerikarra maite zuen gehienik. Euskararen susperkunderako gora handikotzat zeukan kanpo-literatura euskaraz ematea ere. Horretatik itzulpena ona izatearen garrantzia. Zorrotz kritikatu zituen euskarara egiten zituen literatura-obren itzulpenak; zehaztasuna falta zuten batetik, eta berezkotasuna eta adierazkortasuna bestetik; pobreegiak ziren bere ustez.



Mark Twain-en ipuina ingelesetik euskarara itzulia (1990)





Ingelesetik euskaraturiko Dickens-en eleberri ezaguna


Eredu bat urratu nahirik, saio praktiko batzuk ere egin zituen. Ingelesetik egin zituen, zuzen itzulita, euskaratze guztiak. Allan Poren *The Cask of Amontillado* (Egan 1963) izan zen lehena. H. Melville-en *Moby Dick*en hiru kapitulu eskaini zizkigun geroago *El libro negro del euskara* saio barruan (112-123).

Beranduan eta bizkaieraz argitaratu zituen beste lan bi, lehenik bere «euskara osotu» ereduaren erredaktatu zituenak. Bata, laburra, Mark Twain-en ipuin ezagun bat, *Erregegaia eta eskekoa*. Bestea, Dickens-en *David Copperfield*en bertsio laburtu bat.

## Gramatika inguruko lanak

Hizkuntzaren didaktikaz guztiz kezkatua agertu izan zen bere bizi guztian. Ingeles irakaslea izanik —nahiz eta hizkuntza-ikasketan bera autodidakta hutsa izan— bigarren hizkuntzaren edo ikasleari ezezagun zaion hizkuntzaren ikasbidea lantzea zuen bere lehentasunetarikoa bat. Hainbat saio ditu gai horrezaz.


Hamar urtetik gora eman zituen euskara ikasteko metodo bat lantzen, *El vasco de hoy* izenburuz 1981ean hiru tomo marduletan



Euskara irakasteko metodoa hiru liburukitan (1981)

argitaratu zuena. Lehen tomo biek hartzen dute idatzizko lana, hamabost ikasgaitan banandurik. Hirugarrenak, ikasgai bakoitzari dagozkion irudiak, irakasleak ikasleekin lantzeko. Gramatika egituren garatze progresiboa egiten du, ariketa ugariz hornitua, eta gramatika-azalpen argi eta baliagarriez osatua.

Nahiz eta metodo horrek, batez ere zabal-kunderik ezaren erruz, eta baita nagusitzen ari zen batasun eredutik apur bat urruntzen zelako ere, bere aldian arrakastarik izan ez bazuen ere, ezin dakiokete kendu obra erraldoi horri duen meritu handia. Egileak ordu onuratsu asko eman zituen isileko lanean, eta luzarora, aldiko arrakastarik eza gorabehera, lan onak bere emaitza agerian uzten du.



Gernikako intonazioaren gaineko azterketa (FLV, 1984)

Intonazioa ikertzea izan zuen beste ardur handietariko bat. Gramatika-ikasbidean ere sartu zuen intonazioaren ikasketa, gramatika egiturekin batera. Baina ikertu ere egin zituen tokian tokiko hizkeren zenbait intonazio, bereziki bere Gernikako euskararena. Ikerketa-saio luze bat argitaratu zuen *Fontes Linguae Vasconum (FLV)* aldizkarian gai honezaz: *Estudio sobre entonación vasca según el habla de Guernica* (1974, 353-393; 1975, 289-338).



Euskararen gaineko saio-bildumaren azala (1984)

## Dibulgazio saioak

Oskillasok euskararen ibilbide modernoaz jarrera oso kritikoa hartu zuen, batez ere Euskaltzaindiak bultzatu zuen euskara batu ereduaren inguruan. Eta honek Mitxelenaren gidaritzapean *El libro blanco del euskara* atara zuelarik (1977), Basterretxeak, azken urteetan idatziak zituen saio-lanekin bilduma bat egin, hari *El libro negro del euskara* izenburua ipini eta argitarabidea eman zion. Hainbat zailtasun gaindituz, azkenez 1984an atara zuen, bere kabuz eta diruz atara ere.

Saiootan euskararen gaineko arlo diferenteak jorratzen dira: euskalkien krisia eta horren ondorio txarrak, elebitasunaren arazoa, euskararen irakaskuntza, administrazioa eta euskara, euskaldun zahar eta berrien arteko gatazka, etab. Euskal literatura modernoaren inguruan ere zorrotz dantzatuko du luma, zenbait idazle berriren joerak eta emaitzak gogor as-tinduaz.

## Marrazkia, pintura eta eskultura

Ez da horren ezaguna Oskillasoren beste alderdi hau. Gizon polifazetikoa eta jakintza entziklopedikoz hornitua zen aldetik, artea ere gogotik landu zuen bere astialdietan, musika ere, bereziki musika klasikoa egin zuen bezala.

Marrazki-produkzio ugaria du Oskillasok. *Kurloiak* obrako marrazki guztiak bereak dira. *El vasco de hoy* obraren hirugarren liburukiko marrazki txiki pila guztia ere berak banan-banan egina da.

Pintura asko egin zuen, batez ere oleoak. Bilbon eta Donostian erakusketa bana 1969an, eta London-en ere egin ei zuen besteren bat. New York-en egiteko asmoa ere izan zen, berak aitortzen duenez. Bere emaitzaren zati bat Retana argitaratzailearen eskuetara joan zen, eta harrezkero haien aztarrenak galdu

Lau euskal zestolari Leridan (1941-48 bitartean)





Miel Otxin Lantzeko Inauterian



La Rochelleko kale bat (1970-72 inguruan)



Gernika edo Mundakako Errioren ikuspegia

G

20



Inglaterra hegoaldeko ondartzaren (1965-70 bitartean)

dira. Izan ere, koadro bidez ordaindu zion —artistaren emaitzaren erdia, kalkulatzeko— LGEVn argitaratu zituen obren zati bat; beste zati bat dirutan.

Gernikan egin zen 2003ko abenduan, familia-koen eskuetan diren obrez osaturiko erakusketa bat, *Euskaldunak Madrilen* eleberria argitaratzearen motiboaz.

Landu zituen gaien artean paisajeak dira nagusi, natura eta hiri paisajeak; erretratuak, bodegoiak, euskal pilotariak eta beste motibo batzuk ere baditu. Erretratuetan, aitari eta emazteari egin zizkionak dira aipagarrienak. Paisajeetan, Gernikako itsasadarra, esaterako.

## Jakintza arloko harremanak

Oskillasok harreman handia edo luzarokoa izan zuen euskaltzaleen artean, guztiak aipatzerik ez dagoenez, izendatzekoak diren itzal handiko batzuk ekar ditzagun.

Jon Bilbao bibliografo ezagunarekin aspaldiko harremana zuen; gudu aurrean Madrilen Euzko Ikasle Batzaren lehendakari zen denborakoa. Baina 68an berriro topo egingo zuten Arantzazuko Batzarraren inguruan. Sintonia handia izan zuten.

Mitxelenarekiko harreman estua elkarri eginitako gutun ugaz frogatua dago; *Kurloiak* ele-


berria argitaratu zuen inguruan hasi zela esan daiteke. Ordutik aurrera hasiko da *Egan* aldizkarian aldiro idazten. Hizkuntza-iritzietan zituzten diferentziak gorabehera, elkarri begirune handia zioten.

Rudolf de Rijk holandarrarekiko harremana Arantzazuko Batzarrak gerokoa da. Ordutik aurrera Oskillaso bihurtu zen holandar iker-tzailearen aholkulari nagusi, eta maiztasun handiz bisitatzen zuen hark Iruñeko etxean. Esku artean zituen ikerlanetan aholkua eskatuz gainera, honek orrazten zizkion hark

euskaraz idatzitako lanak. Gutun ugari gurtzatu zituen batak bestearekin, gehienetan hizkuntza-literatura kontuak autugai zituztela.

Jose Migel Barandiaran ere lagun mina izan zuen. Behin baino sarriago bisitatu zuen hura Ataunen. Nafarroako Unibertsitatean topo egin zuten, bata etnologia eta etnografia irakasten, bestea euskal hizkuntza.

Aingeru Irigarairekin ere harreman handia izan zuen, biak Iruñean bizi izanik. Honek, Iparraldeko hainbat euskaltzalek bezala, begi onez ikusten zuen Basterretxeak proposaturiko hizkuntza-eredua.



Koldo Mitxelena idatziriko gutuna (1968-11-5)



Rudolf de Rijk hizkuntzalariak eginiko gutuna (1986-2-19)



## Azken urteak

Basterretxearen beheraldia, ebakuntza txar baten ondorioz hasi zela esan daiteke. 1974an gertatu zen ebakuntza hori, bere ikas gramatika nagusia egiten ziharduela eta nahiko aurreraturik zuela. Handik gora min eta oinaze aldiak sarri izaten zituen eta asko sufritzen zuen. Horren ondorioz bere ekimena asko jaitsiko da.

Ekinez eta neurritz gorako ahaleginez burutuko du bere gramatika luze hori eta 1981ean argitara emango LGEV argitaletxean, kostuak bere lepora hartzen zituela.

Handik gutxira argitaratu zuen *El libro negro del euskara* liburua, nahiz berean bildutako lanak lehenago landuak izan gehienak. Hartutako tematia baitzen, eritasuna gorabehera, ez zuen bere lana bertan behera gelditzerik nahi izan.

Azken aldi horretan bihurtu zituen bere «euskara osotu» horretatik bizkaierara hiru liburu, Eubako Ibaizabal argitaletxeak aterako zizkionak: *Gabeko atorra* eleberria eta lehen aipatu itzulpen biak: *David Copperfield* eta *Errege-gaia eta eskekoa*.



Emazte eta seme-alabekin (1990 inguru)

Bere langelan ematen zituen ordu luzeak, disziplina zehatzarekin, idazten, irakurtzen edota musika entzuten. Kultura zabaleko gizona zen eta jakintza arlo desberdinez kezkatua eta zaletua. Denetarik irakurtzen zuen, Errenazimenduko gizon jakitunen antzera. Denetarik aditzen zuen eta gogoko zuen etxeko, ezagun eta kanpoko lagunekin solasaldi luzeak izatea.

Azken urteotan denbora etxean igarotzen zuen gehienbat; familiarekin eta lagunekin solasean, edota bakarlanean. Hala ere ez du lehenagoko adore eta ekimenik erakutsiko euskara eta literaturaren alde.

1996an hil zen, apirilaren 25ean.



Zahartzaroko argazkia (1990 inguru)

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagaririk, eskerrak eman nahi dizkio:

- Basterretxea familiari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2006ko urria

Ale-kopurua: 2.100

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.  
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2471-1  
84-457-2473-8

L.G.: BI - 2746-06

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística